

# SENDOTZEN



MARTXOA – UZTAILA 2024

**5**  
MARTXOA

## FORMAKUNTZA 1 ANIZTASUNA ESS-KO ERAKUNDEETAN

10:00 – 13:30

Lehenengo zatian aniztasunari buruzko hausnarketa egingo da hiru eremutatik: sexuala eta generokoa, kultura anitzekoa eta funtzionala. Bigarren zatian, erakundeen barruan aniztasuna kudeatzeko estrategiak identifikatzeko dinamikak egingo dira.

APIRILA

## AHOLKULARITZA 1

Hileko lehen bi asteetan, enpresa bakoitzak 2 orduko saioa izango du bere aholkulariarekin.

**16**  
APIRILA

## FORMAKUNTZA 2 OGASUNAREKIKO ETA GIZARTE SEGURANTZAREKIKO KONTUAK ULERTZEN. LAN HARREMAN IRAUNKORRAK GARATZEN

10:00 – 13:30

Lehenengo zatian, BEZaren eta PFEZaren aitortpenak eta Gizarte Segurantzaren ordainagiria ulertzen saiatuko gara. Bigarren zatian, ESSaren ikuspegitik lan-harreman osasungarriak garatzeko dauden modalitateak aztertuko ditugu.

**21**  
MAIATZA

## NETWORKINA 1 ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREKIN LANEAN

10:00 – 13:00

Saio honen helburua parte hartzen duten erakundeen arteko lankidetzaren sustatzea da, aldi berean Administrazio Publikoarekin dauden lan modalitate ezberdinetan sakonduz: ABEEak, dirulaguntzak, lizitazioak, kontratu txikiak... Modalitate desberdinen azalpen teoriko bat eman ondoren, modalitate horietako batzuk taldeka izapidetzeko simulakro bat egingo da ariketa praktikoa baten bidez.

UZTAILA

## AHOLKULARITZA 2

Hileko lehen bi asteetan, enpresa bakoitzak 2 orduko saioa izango du bere aholkulariarekin.



Formakuntza eta networkinga **EKONOPOLO** gunean egingo dira, **Harrobi plaza 4, 48003 Bilbon**. Aholkularitza online edo aurrez aurre egin ahal izango da, **EKONOPOLO**an.



Saioak gaztelaniaz egingo dira, ekarpenak euskaraz egiteko aukerarekin. Aholkularitza euskaraz zein gaztelaniaz egin daiteke.